

Noiz egon da torturak probatzerik?

Torturak ez omen dago probatzerik — horra demokrazia, guri tokatu zaiguna.

Hitlerren kontzentrazelaiak eta gas kamarak, esterilizazioak eta kiskalpenak, ez zegoen «probatzerik». Komisio bat ere ibili zen Alcmalian, «neutrala», inbestigazio bat egiten, suediar batek gidatua. Ez zuen ezer aurkitu. Eta Goebbelsek mundu guziaren aurrean baieztatzen zuen geroan hortzaundikiro, IIIgn. Reich-a desprestijiatzeko «judaismo internazionalaren» kalumniak zirela akusazio haiek. 45ean tropa sobietarrek, milagro baten bidez, ez omen zeuden eta probatzerik ez zegoen errealitate haiek, ez zeudenak, aurkitu egin zituzten. Bazeuden. Baina agian Goebbelsek ez zekien? Hitlerrek ere ez zekien? Ala?... Hogeitamar urte geroago, telebistaren aurrean escri eta zuk eta nik *Holocaust* ikusten dugu. Probatzerik ez zegoena. Inbestigazio batek ikusi ez zuena. IIIgn. Reich-a desprestijiatzeko asmatu zen kalumnia.

Francoren denboran ere torturak ez zegoen probatzerik. Nire adiskide batek, beti probarik ez zegoela esaten zuen Donostiako Bereziartua Apezpikuari, bere seinaleen argazkiak bidali zizkion, libre geratu bezain laister. Apaiza zen bera eta oraindik ere ondo bistan dauzka buruan gartzelako tratu txarren markak. Baina alfer-alferrik egon zen, Apezpikuak, proba haiek ikusita, elkarriketara batetara gutxienez gonbidatuko zuela, itxaroten. Egunak pasa ziren eta, inolako erreakziorik ez zegoela ikusirik, berak hasi behar izan zuen aberiguazioak egiten Apezpikutegian. Eta argazkiak «galdu» egin zirela, esplikatu zioten azkenean. Hori dena telefonoz (eta orain esan daiteke, «diktatura garaian» Apezpikuen telefonoak ere kontrolatuta egoten zirela). Ez dut gogoan, nola galdu omen ziren. Dena dela, azken batean, orduan ere torturen probarik ez zegoen eta Izpiritu Santua ezin has zitekeen, probatzerik ez zegoen okerkeria baten kontra bere protesta altxatzen.

Denbora pasa da eta orain denok baliente. Proba berririk —nik dakidanik— ez da sortu, baina orain edozeinek esan dezake, kontzientziako eskrupulo larririk gabe, gauza seguru bezala, diktatura garaian bai, tortura bazegoela. Orduan bai. Are, berak «beti demokrata» izan direla, erakutsi beharra daukaten horietxen ritual bat bilakatu da, «diktatura garaian» egiten omen ziren itsuskeriak eta gizatzarkeriak gora-goratik eta solemneki salatzea. «Betiko demokraten» ezaugarri bat da, mundua den teatroan, aldeindako dea-

bruen kontra borrokari deliberatuenak orain berak izatea. (Politiko demokrata pijoena, atzoko torturatuaren kontura gaur lamentoak eginez bera martiri irudian agertzea lortu duenena da). Baina orain, ba ote dabil orain deaburrik, telefonoak kontrolatzen, gartzeletan jendea torturatzen? Hori oso nekez demostratzen da. Eta politiko demokrata pijoak, demostratzen ez bazaio, ez dauka zergatik protesta altxatu eta zergatik borroka egin, eta inbestigazio bat eskatuko du, eta lasai dago.

Desanparatuta, atzo adina gaur, deabruaren atzaparretan erori den gizajoa geratzen da, Euskadin, Txilen, Hego Afrikan, Pragan: «irabazleen arraza» politiko unibertsal beti justu eta beti zuhur horren zinismoak are zaurituago, torturak berak baino. Arima txikitzen duena, demokrata hortz-xuri horren interes hipokrita bait da. Demokrazia, holakoetan, insulto haundiagoa da gizatasunari, diktatura bera baino.

Torturatuari torturak demastrapatzea ezintzen dion legea, Alderdi demokratikoen bedekinkazio guziekin emana, torturarik egon gabe ere, berez eta beste gabe da giza eskubideen triskantza satanikoa, Estatu demokratikoa ala faxistan berdin da. Ez da hiritarra —noizean behin botoa eskatzen zaion hori— torturari atak itxi behar dizkiona eta torturarik egon ez dadin begiratu behar duena. Estatuaren lana da hori. Gartzelak dira demokraziaren termometroa, aspaldi esan zen. Legearen jiteak legegilearen citea erakusten du. Estatuaren natura. Demokraziaren oinarria giza eskubideak eta elkarrizketa baldin badira, ordea, legeok elkarrizketatik eta giza eskubideetatik kanpora uzten dute —hamar egunetako bada ere— presoak, torturatua: beraz, demokraziatik kanpora; beraz, Estatutik kanpora. Hamar egun gizon ez dena, ez da gizon. Gizona hamar egunetz gizagabezta lezakeen Estatuak, ez da gizatasunaren Estatuak. Beraz, zein demokrazia edo zein Estatuak da, presoak, torturatuak, eta harekin solidari sentitzen direnek, terrorismoaren erasotik defendatu behar omen dutena? Zertarako defendatu, defendatzen ez gaituen demokrazia?

Gartzelan, kanpokoen solidaritatea da hezur hautsiak eta haragi mailatuak poliki-poliki sendatzen dituenak. Eta beti justu eta zuhurren zinismo hori da, presoaren gau hotzetan inpotentziatzko negarra eragiten duena. Amorrazioa. Desesperazioa. Eta, geroenean, biolentzia. Bai, biolentzia. Bizitza, gartzelan, luzea da. Torturatua, azkenean, torturatu zutenak berak baino gehiago, bere inpotentzian, lagundu behar lioketen, baina despreziatu egiten dutenak, gorrotatzera, iritsiko da: «betiko demokratak» eta betiko demokraten demokrazia. Alderdien eta Idazkari Orokarren demokrazia, Paktoen demokrazia, erreferenduen eta Parlamentuen demokrazia. Bere torturaren probak eskatuz datozkionak, probarik egotea bere inposibilitatu eta gero.

Inbestigazio bat irekitzeko, eskatu dute orain, eskandalizaturik bezala, Alderdiek, orain arte eskandalo hortaz tutik entzun ez ba-

lute bezain sorpreniturik eta inuzente. Eta badakigu, hemen irekitzen diren inbestigazioek, zer ematen duten ere. Jurramendi, Irui-neko San Ferminak, Alba, Kijera, Caballero; Xabier Onaindiaren torturak... Zer da, beraz, inbestigazio bat eskatzen duenak, eskatzen duena? Arazo sasi hau ken diezaiotela mahain gainetik, eta zer gehiago? Problema hori lehenbailehen kaletik eta periodikoetatik desagertzea baino zerbait gehiago bai, bera bere arazo politikoa serioetara dedikatu ahal izateko? Pasa dadila asunto hori aguro eztabaida publikotik gabinete sekretoetara, Ministerioren batetan, eta jendea, politikoen bakerako, isil dadila, eta zer gehiago? Kasuarentzat soluzio bat, nahi du, ala eskandaloak sortu dion apuroarentzat soluzio bat?

Harriturik entzun dugu, aginte demokratikoaren berriemaile ofizialaren ahotik, hori asunto penala eta juridikoa dela, EZ politikoa. (Oraindik asko ikasi beharrean gaude, demokrazia berri honetan politika zer den jakitera iristeko). Deskontsolaturik entzun ditugu Alderdi demokratikoen deklarazioak, asuntoaren argitzapena eskatuz: ez gizonaren eta demokraziaren kezka, aparato demokratikoaren holako aberiak «estremistek» aprobezia ez ditzaten kezka betetik baino. Bistan da. Ia desengainaturik irakurri ditugu periodikoak. Bueno, egia esateko, apenas genuen zer desengainatu askorik, aspaldi honetan. Ez politikoeekin, ez periodikoeekin, ez demokraziarekin. «El último grado de la perversidad —esaten zuen Voltairek— es hacer servir las leyes para la injusticia». Eta zinismoaren azkeneko gradoarekin pare-parean geratzen da.

Bitartean, guk, Meliá jaunak esan du, eta esan egingo dugu baezpadan, torturen arazo hori dena «una campaña de desprestigio contra los cuerpos y fuerzas de Seguridad del Estado» dela, beste ezer ez. Klaro. Gu ez gara terroristak apoiatzen dituzten irresponsable horietakoak.

Bakarrik, zeinek sinestu behar digu hori Euskal Herrian? Eta hori sinesterik ez badago, nola egon behar du «demokrazian» sinesterik Euskal Herrian?

Burla sarkastiko eta ondo gabeko zinismo hutsa da, hamar egun torturatu eta gero ere torturarik ageri probatu ahal izateko bide guziak aurretik itxi legalki, Dekreto-Lege Antiterrorista horrekin, eta gero hipokrisia xuri-xuriz probak esijitzea edo inbestigazioak eskatzea. Pilatos inuzente bat zen mundu honetan. Aldareetan jarri beharko genuke. ■ *Joxe A. Otaegi.*

Estatu Jainkoa

Torturarik egon denik eta dagoenik ezin omen daiteke frogatzea. Hala mintzatu zaizkigu, irri gozoz eta inozentez, Estatuaren aparatua eskutan dutelako zerbait direla uste duten gizonen batzuk. Eta